

PRIBATUTASUN-POLITIKA

PRIBATUTASUN-POLITIKA

Webgune honen titularra ARGIA FUNDAZIOA da, eta honako hauek dira fundazioaren identifikazio datuak:

IFK:	G48299242
Sozietatearen izena:	ARGIA FUNDAZIOA
Sozietatearen egoitza:	Trinitate kalea, 11, 48993, Getxo
Telefono-zenbakia:	944911946
Helbide elektronikoa:	nloizaga@argiafundazioa.org

1 INFORMAZIOA ETA BAIMENA.

Pribatutasun-politika hau onestearen bidez, erabiltzailea jakinaren gainean geratzen da eta baimena ematen du, modu aske, informatu, zehatz eta garbian, webgune honen bidez emandako datu pertsonalak FUNDAZIOAK trata ditzan.

2 DATUAK EMATEKO DERRIGORTASUNA.

Webguneko formularioaren bidez eskatutako datuak, oro har, ezinbestekoak dira (baldin eta atalean bertan aurkakoa zehazten ez bada) ezarritako helburuak betetzeko. Horrenbestez, horiek ematen ez badira edo zuzenak ez badira, ezingo dira helburu horiek bete. Hala ere, webgunearen edukia modu askean begiratu ahal izango da.

3 ZEIN XEDEREKIN ETA ZENBAT DENBORAZ TRATATUKO DIRA ERABILTZAILEAREN DATU PERTSONALAK?

Webgunearen bitartez emandako datuak FUNDAZIOAK tratatuko ditu, honako helburu hauekin:

- Erabiltzailearen galderak, gorabeherak, eskaerak eta eskariak kudeatu, izapidetu eta erantzutea, baldin eta erabiltzaile horrek bere datuak ematen baditu harremanetarako formularioaren bidez. Datuak helburu horrekin gordeko dira harik eta erabiltzaileak baimena atzera bota edo aurka egin arte.

- Erabiltzaileei aldian-aldian bidaltzea, baita bitarteko elektronikoen bidez ere, bere interesekoak izan daitezkeen produktu, zerbitzu, promozio, eskaintza, ekitaldi edo albisteen jakinarazpen komertzialak. Hori erabiltzaileak baimena eman baldin badu dagokion kontrol-laukiaren bidez eta, hala badagokio, aurka agertu edo baimena atzera botatzen duenera arte.

4 ERABILTZAILEAREN ZEIN DATU TRATATUKO DIRA?

FUNDAZIOAK erabiltzailearen datuen honako kategoria hauek tratatuko ditu:

- Identifikazio-datuak: izena, abizenak eta NANA.
- Harremanetarako datuak: posta-helbidea, helbide elektronikoa eta telefono zenbakia.
- Fakturaziorako datuak

5 ZEIN DA ERABILTZAILEAREN DATUEN TRATAMENDUAREN LEGITIMAZIOA?

FUNDAZIOAK erabiltzaileen datuekin egiten duen tratamendua eskatutako baimenean oinarritzen da, eta edozein unetan ken daiteke baimen hori. Hala ere, baimena kendu nahi izanez gero, horrek ez du eraginik izango aurretik egindako tratamenduen zilegitasunean.

Aipatutako helburuetarako emandako baimenak independenteak dira. Horrenbestez, erabiltzaileak ezin izango du horietako bat bakarrik atzera bota besteei eragin gabe.

6 ZEINTZUEI JAKINARAZIKO ZAIZKIE ERABILTZAILEAREN DATUAK?

Erabiltzailearen datuak ez zaizkie inola ere jakinaraziko beste enpresa batzuei, legezko betebeharra dagoen kasuetan izan ezik.

7 ERABILTZAILEAREN ERANTZUKIZUNA.

Erabiltzaileak:

- 18 urte baino gehiago dituela bermatzen du, eta FUNDAZIOARI emandako datuak benetakoak, zuzenak, osoak eta eguneratuak direla. Ondorio horietarako, erabiltzailea izango da jakinarazitako datu guztien egiazkotasunaren erantzule, eta behar bezala eguneratuta mantendu beharko du emandako informazioa, unean uneko egoera errealarekin bat etor dadin.
- Webgunearen bidez emandako informazio faltsu edo zehaztugabeen erantzule izango da, bai eta horrek FUNDAZIOARI nahiz hirugarrenei eragin ahal dizkien kalte eta galeren (zuzenekoan edo zeharkakoan) erantzule ere.

8. KOMUNIKAZIO KOMERTZIALAK ETA PROMOZIOZKOAK.

FUNDAZIOAK erabiltzaileek emandako datu pertsonalak tratatzearen helburuetako bat da jakinarazpen elektronikoak bidaltzea, erabiltzaileari interesgarriak iruditu ahal zaizkion produktu, zerbitzu, promozio, eskaintza, ekitaldi edo albisteei buruzko informazioarekin.

Erabiltzaileak FUNDAZIOAREN jakinarazpen komertzialak edo promoziozkoak jasotzeari utzi nahi badio, baja eska dezake. Horretarako, mezu bat bidali beharko du honako helbide elektroniko honetara: nloizaga@argiafundazioa.org.

9 ESKUBIDEAK ERABILTZEA

Erabiltzaileak edonoz bidal dezake idatzi bat doan ARGIA FUNDAZIOARI (nloizaga@argiafundazioa.org), bere NANaren fotokopiarekin batera, bere eskubideak (datu pertsonalak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, eramateko eta tratamendua mugatzeko) erabili ahal izateko.

Gainera, interesdunak uste badu ARGIA FUNDAZIOAK urratu egin dituela datuen babeserako aplikagarria den araudiak aitortutako eskubideak, erreklamazioa aurkez dezake Datuak Babesteko Espainiako Agentzian, honako helbide honen bidez: Datuak Babesteko Espainiako Agentzia, Jorge Juan kalea, 6, 28001-Madril.

10 SEGURTASUN NEURRIAK.

FUNDAZIOAK une oro konfidentzialtasun osoz tratatuko ditu erabiltzailearen datuak, eta horiek isilpean gordetzeko ezinbesteko betebeharra beteko du, bat etorritik aplikagarria den araudiarekin. Hala, horretarako beharrezko neurriak hartuko ditu, teknikoak eta antolaketarekin lotutakoak, zure datuen segurtasuna bermatu eta horiek aldatzea, galtzea edo baimenik gabe eskuratu edo tratatzea ekiditeko. Hori guztia kontuan izanda teknologiaren egoera, gordetako datuen izaera eta horiek izan ditzaketen arriskuak.